



KRISTAU-PRESTAKUNTZARAKO MATERIALAK

2026

Deklaratu
**GERRA
GOSEARI**

Katekista eta
hezitzaileentzako gida



Manos Unidas/Javier Warrón

Katekesia:

- Haurtzaroa
- Nerabezaroa
- Gaztaroa
- Helduaroa

Manos Unidas
CAMPAÑA CONTRA EL HAMBRE

Borondatezko Barauaren Eguna
2026ko otsailaren 6a, ostirala

Manos Unidasen Jardunaldi Nazionala
2026ko otsailaren 8a, igandea

MANOS UNIDAS: ZER DA ETA ZER EGITEN DU?

Manos Unidas Espainiako Eliza Katolikoaren baitako elkarte bat da. Munduko herrialderik pobretuenei aurrera egiten eta garatzen laguntzen die, eta Jesu Kristoren hitzak gauzatzea du helburu: "Gose nintzen eta jaten eman zenidaten; egarri nintzen eta edaten eman zenidaten". Manos Unidasek 1959an antolatuz lehenbizikoz Gosearen Aurkako Kanpaina.

Horrez gain, garapenerako gobernu kanpoko erakunde bat ere bada, boluntarioz osatua, katolikoa eta sekularra.

Manos Unidasek misioa pobreziaren, gosearen eta desberdinkeriaren aurka, besteak beste, borrokatzea da, eta horiek eragiten dituzten egiturazko kausak desagerrarazten ahalegintzea.

Horretarako, garapenerako eta eraldaketa sozialerako hezkuntza-jarduerak egiten ditu (hitzaldiak, ikastaroak, kanpainak, sare sozialak...), baita garapen-proiektuak ere, tokiko bazkideekin eta laguntzen dituen komunitateekin besoz beso lan eginez.



Manos Unidas

ZEIN DIRA BERE ASMOAK?

- ❖ Kristau-elkartea sentsibilizatzea, jakiteko oso beharrezkoa dela munduko gatazka ahaztuak ezagutzea, bai eta haien kausak –botere-grina, aberastasunak bereganatzea, gosea eta txirotasuna– eta ondorioak ezagutzea ere.
- ❖ Katekistei eta hezitzaileei baliabideak eskaintzea, **bakearen izen berriaren aldeko konpromisoan lagunduko** duen prestakuntza-ibilbide baten bitartez. Izan ere, justiziazko eta anaitasunezko mundu bat eraikiz bakarrik lortuko dugu bakea eta Jainkoaren ametsa egia bihurtzea: **denok bizitza duina izatea.**

"Bakea, neure bakea, ematen dizuet; nik ematen dizuedan bakea ez da munduarena bezalakoa". (Jn 14,27)

*"Milioika dira gosea, segurtasunik eza eta marjinazioa egunero jasaten duten haurrak, emakumeak eta gizonak. Egoera horiek giza duintasunaren aurkako irain larriak dira, eta ezegonkortasun soziala areagotzen dute [...]. Ahulen esplotazioa, miseria-eremu kezagarriak eta desberdintasun sozialak beste hainbeste oztopo eta traba dira benetako bakea lortzeko baldintza egonkorrak ezar daitezen".
(Joan Paulo II.a, Bakearen Mundu Jardunaldia, 1993ko urtarrilak 1)*

*Bakea "ez da bakarrik gerrarik eza, baizik eta konpromiso nekaezina –batez ere erantzukizun handiko karguak betetzen ditugunontzat– gure anai-arrebei askotan ukatzen diegun duintasuna aitortzeko, bermatzeko eta berreraikitzeko, beren nazioaren patuaren protagonista nagusi senti daitezen".
(Frantzisko aita santua, Fratelli Tutti 233)*

*"Bakea gutako bakoitzarengandik hasten da, besteei begiratzeko, besteei entzuteko eta besteei buruz hitz egiteko modutik. Beraz, besteekin komunikatzeko moduak funtsezko garrantzia du. Hitzen gerrari "ez" esan behar diogu".
(Leon XIV.a)*

BAKEA ETA GARAPENA

Garapena, bakearen izen berria.
Bakea, pobrezari, goseari eta desberdinkerari aurre egiteko.

“Hirugarren mundu-gerra baten egungo eszenatoki dramatikoan, Frantzisko aita santuak behin eta berriz adierazi duen bezala, ni ere munduko handiei zuzentzen natzaie, beti gaur egungoa den deia errepikatuz: «Inoiz gehiago ez gerra!». (Leon XIV.a)

Kanpaina honetan hausnartuko dugu zer egoeratan dagoen bakea gure munduan eta zer-nolako garrantzia duen pobrezaren, gosearen eta desberdintasunaren aurka borrokatzeko. Manos Unidas erakundearen egitekoa da herri ahulenen bizi-baldintzak hobetzen laguntzea. Horretarako, Benedikto XVI.a aita santuak adierazitako ideia hartzen dugu abiapuntutzat: **“Pobrezari aurre egitea bakea eraikitzea da”**. Ideia horrek eguneratzen du Paulo VI.a aita santuak *Populorum Progressio* (1967) entziklikan eginiko planteamendua: **“Garapena da bakearen izen berria”**, eta printzipio horiek izango dira gure 2026ko kanpainaren oinarri.

Bakea –gatazkarik eza ere baden aldetik–, bakea eta garapena elkarren osagarri dira pertsonen bizitza duintzeko. Hala ere, badakigu gaur egungo munduan desberdintasun asko daudela eta garapen sozial integrala falta dela.

“Gizarte bat baketu nahi dutenek ez dute ahaztu behar ekitaterik gabe eta garapen sozial integralik gabe ez dela posible bakea sortzea. Hain zuzen ere, «aukera-berdintasunik ezean, eraso- eta gerra-modu desberdinek lehenago edo geroago eztanda egingo duen haztegi bat sortuko dute»!”. (Frantzisko aita santua FT 235)

Zoritxarrez, hitz horiek egia bihurtu dira, eta areagotzen ari dira indarkeriazko gatazkek zein indarkeriarik gabekoak. 92 herrialdek modu aktiboan parte hartzen dute 56 gerratan, eta baliabide naturalen kudeaketa gatazkaren arrazoietakoa bat da planetan, botere-grinaz, goseaz eta pobreziaz gain. Horren ondorioak dira, besteak beste, giza bizitzak galtzea, pertsonen ezintasunak areagotzea, bizibideak eta ekoizpen-prozesuak etetea, gosea eta pobrezia areagotzea, suntsipena, behartutako desplazamenduak...

Gatazka horietako asko saihestuko lirateke pobrezia, gosea eta desberdintasuna amaituko balira; izan ere, “bakea da giza garapenaren izen berria”, eta topaketara garamatza funtsean. Itun Zaharrean, bakea maitasun-, adiskidetasun- eta topaketa-harremana da gizakiaren eta bere Sortzailearen artean, baita pertsonen artean eta pertsonen eta naturako gainerako elementuen artean ere. Itun Berrian, Baketzat aurkezten du Jesusek bere burua, eta bake horrek adiskidetzen ditu gizakiak elkarrekin, munduarekin eta, batik bat, Aitarekin. Amodiozko topaketa justiziaren fruitua da eta misio bat ere bai, zazpigarren zorionbideak adierazten duen bezala: **“Zorionekoak bakegileak, haiek baititu Jainkoak seme-alabatzat hartuko”**. (Mt 5, 9)

Frantzisko aita santuak adierazi du bakea eraikitzeke behar-beharrezkoa dela hainbat bide dituen prozesua:

- ✓ Bide pertsonal bat, giza duintasuna aitortzeko.
- ✓ Bide sozio-ekonomiko bat, duintasun hori bermatzeko.
- ✓ Bide politiko bat, duintasuna iraintzen denean berriz eraikitzeko.

Bide horiek uztartuta daude. Bihotzaren bakeak justizia sozialera darama, eta justiziak anaitasun unibertsalaren eraikuntzara. Pertsona, gizarte, Eliza, enpresak, erakunde politikoak... dira prozesu horren eragileak. Denok izan behar dugu “bakearen artisau”.

“Gizarteak —tokikoak, naziokoak edo mundukoak— bere buruaren zati bat periferian uzten duenean, ez da egongo lasaitasun osorik ziurta dezakeen programa politikorik, polizia-baliabiderik edo inteligentzia-baliabiderik. Berriz hasi beharrean bagaude, beti hasiko gara azkenengandik abiatuta”. (Frantzisko aita santua, FT 235)

Manos Unidas erakundeak bere egiten ditu Frantzisko aita santuaren hitz horiek. Manos Unidasen ustez, denok, txikienetik boteretsuenetaraino, elkarrekin lan egin behar dugu “eguneroko gauza txikietan, gizateriaren alde” (Frantzisko aita santua), eta elkarrekin eraiki behar dugu “justizian eta bakean oinarritutako etorkizun hobea” (Joan Paulo II.a).




HAURREN KATEKESIA

AITOR DEZAGUN (Interpretatzeko)

- Hiru istorio errealitatea ezagutzeko



Amal Zisjordanian bizi da (Palestina). Israelekin izandako liskarren ondorioz, Amalen bizilagunek eta senideek ezin dute urik lortu, eta horrek zaildu egiten du haien bizitza eta higiena. Ama eta auzokideak bizimodu duina lortzeko elkartu dira, Emakumeen Garapenerako Landa Elkartearen eta Manos Unidasen laguntzarekin.



Abai Etiopiakoa da. Duela zenbait urte, gatazka oso bortitz batek suntsitu zituen bere familiaren eta komunitatearen bizibideak. Sant Mary Erakundeak eta Manos Unidasek proiektu bat jarri dute abian ura lortzeko eta elikagaiak ekoizteko.



Luciana Kolonbian bizi da. Bizi den lekuan, hiru arazo daude: mineralen legez kanpoko erauzketak eragindako kutsadura, euriteek eragindako uzta-galera eta gatazka armatua. Manos Unidas Fundación Solidaria Arquidiócesana elkartearekin ari da lanean, elkarbizitza zaintzeko eta hango bizi-baldintzak hobetzeko proiektu batean.

- Zein izan da neska-mutil horiek bizi izan duten arazo komuna?

INTERPRETA DEZAGUN (Aukeratzeko)

- Zer esaten digu Jainkoaren Hitzak?:

- ▲ "Zorionekoak bakegileak, haiek baititu Jainkoak seme-alabatzat hartuko". (Mt 5,9)
- ▲ "Bakea, neure bakea, ematen dizuet". (Jn 14, 27)



● **Eta Elizaren Doktrina Sozialaren dokumentuak?:**

- ▲ “Bakearekin ez da ezer galtzen; gerrarekin dena gal daiteke”. (*Pacem in Terris*, 116)

● **Pentsa dezagun**

- ▲ Zer da, zure ustez, bakea?
- ▲ Zergatik da garrantzitsua bakea?
- ▲ Zure iritziz, zergatik oparitu zigun Jesusek bere bakea?
- ▲ Nola uste duzu egiten duela lan Manos Unidasek bakearen alde?

AUKERA DEZAGUN (Jarduteko)

Haur guztiak bakean bizi ahal izatea, hori ere gure esku dago.

● **Hausnartu**

- ▲ Zer egin dezakezu pertsona atseginagoa izateko?
- ▲ Nola lagundu diezaikezu beste pertsona batzuei samurragoak izaten eta gutxiago haserretzen?

● **Egin**

- ▲ Egin kartel bat, bakea sustatzen duten egoerak adierazteko. Adibidez, pertsonen arteko besarkada bat, barkamen-keinu bat, etab.

EGIN DEZAGUN OTOITZ (Eskerrak emateko)

● **Antolatu topaketa bat katekesiko talde guztiekin eta beren familiekin**

- ▲ Jarri kartelak aldarean.
- ▲ Kantatu bake-kanta bat.
- ▲ Gonbidatu senideak parte hartzera, eskatuz edo eskerrak emanez.
- ▲ Eman Manos Unidasen 2026ko Garizumako “Haur eta familientzako jardueren koaderno”.

● **Egin otoitz elkarrekin**


Jauna, ikasi dugu bakea keinu txikiekin eraikitzen dela: irribarre egitea haserre-aurpegia jarri ordez, etxean edo klasean laguntzea, hitz egitea oihukatu beharrean... Era berean, ikasi dugu bakea gure bihotzean sortzen dela eta jendea alaitzen laguntzen duela. Zu beti izan zinen atsegina eta samurra zure ingurukoekin; hurbiltzen zitzaizkizun hurrekin, bereziki. Zuk ez zenion inori maniarik eta beti barkatzen zenuen. Jauna, lagundu iezaguzu zu bezalakoak izaten. Eskerrik asko, Jauna, beti gure ondoan egoteagatik eta bakearen alde lan egiten irakasteagatik.



NERABEEN KATEKESIA


AITOR DEZAGUN (Interpretatzeko)

- Azken urteetan, gora egin du gatazken eta gerren kopuruak. Batzuk albisteetan egon ohi dira, Ukrainako gerra edo Gazakoa adibidez, baina badirudi beste batzuk ez zaizkiola inori axola. Ezagutzen al dituzu azken datuak? Hona hemen:
 - ▲ 2025eko otsailean 56 gatazka armatu zeuden. 92 herrialde zeuden gerra horietan sartuta, kopururik handiena Bigarren Mundu Gerra amaitu zenetik.
 - ▲ Pobreen % 40 gatazkan dauden herrialdeetan bizi dira.
 - ▲ 6 haurretatik 1 gatazka-eremuetan bizi da. Haur horien % 20k (52 milioi) eskolara joateari utzi diote.
 - ▲ 120 milioi pertsona inguru (Espainiako biztanleria 2,4 aldiz) desplazatuta daude edo emigratu egin dute gerren ondorioz.



- Espainiako Akademiak honela definitzen du indarkeria: *"indarkeriazko ekintza edo jokabide naturalaren aurkako ekintza"*. Ba al zenekien indarkeria-mota desberdinak daudela?:
 - ▲ Indarkeria zuzena: ekintza oldarkorretan azaleratzen da, hala nola gatazka armatuan, behartzean edo torturan.
 - ▲ Indarkeria estrukturala: egoera bidegabe eta desberdintasun guztiak biltzen ditu; adibidez, gosea edo eskubiderik eza.
 - ▲ Indarkeria kulturala: desberdintasuna justifikatzen edo babesten duten ideia eta jarduteko modu guztiak dira, hala nola arrazakeria.

GIZA GARAPENAREN INDIZEA (GGI) 2021



▲ Alderatu giza garapenaren indizearen mapa hau bake-indizearen maparekin. Zer erlazio ikusten duzu?

- 2016an, Sant'Egidio Komunitateak Korridore Humanitarioak jarri zituen martxan. Akordioak egin zituen gobernuarekin errefuxiatuak modu legalean jasotzeko. Ordutik, ekimen horrek 8.000 pertsonari baino gehiagori bermatu die joan-etorri segurua, Erdialdeko Asiatik Italiara, Belgikara, Frantziara eta Andorrara. Ezagutzen al duzu bakearen aldeko beste ekimenik? Zer egiten ari da?

INTERPRETA DEZAGUN (Aukeratzeko)

● Irakurri testu hauek

▲ Taldeka, irakurri testuak eta erantzun galderari:

“Bakea beretzat bakarrik bilatzen duen gizonaren bihotzean ezin da bakerik egon. Kristoren bakea aurkitzeko, beste batzuek ere bakea izan dezaten desiratu behar dugu, eta gure bakearen eta zorientasunaren zati bat sakrifikatzeko prest egon, beste batzuek bakea izan dezaten eta zoriatsuak izan daitezen. [...] Kristok dakarren bakea gure baitan hasten da eta kanporantz hedatzen da”.
(Thomas Merton)

“Izan ere, ezin da bakerik egon gizartean, lehenik eta behin pertsona bakoitzaren barruan ez badago. [...] Izan ere, bakea hitz hutsa izango da egiaren ordena batean oinarritzen ez den bitartean, hau da, ez bada justiziaren arauen eta karitatearen gain ezartzen”.
(Pacem in Terris, San Joan XXIII.a)

“Gizaki guztien zeregina, beraz, bakea eraikitzea da. Jesu Kristoren ereduari jarraituz, bi bide hauek hartu behar ditugu: justizia sustatzea eta praktikatzea, eta giza garapen integralari laguntzea, elkartasunaren logikaren arabera. [...] Gizaki orok izan behar du aukera bizirauteko funtsezko diren baliabideak lortzeko: elikagaiak, ura, etxebizitza, osasun-arreta. [...] Baliabide horien mende dago guztiontzako bake iraunkorra”.
(Frantzisko I.a aita santua, Pacem in Terris entziklikaren 50. urteurreneko mezua)



- ▲ Egileak ezagutzen dituzue? Interneten haien biografiari buruzko informazioa bila dezakezue.
- ▲ Ados al zaudete testuekin?
- ▲ Aldatu al da bakeari buruz zenuten iritzia, katekesia hasi aurretik zenutenarekin alderatuta?
- ▲ Laburbildu testu bakoitza esaldi bakar batean, gainerako taldeei azaltzeko.

● Bateratze-lana

- ▲ Bakearen gainean, zein ideiatan datoz bat hiru testuak?
- ▲ Zer egitera animatzen gaituzte?
- ▲ Pentsatu denen artean esaldi bat, irakurri eta erantzun duzuen laburbiltzeko.

AUKERA DEZAGUN (Jarduteko)

● Berrikusi bakeari eta justiziari buruz duzun jarrera:

- ▲ Zer pentsatzen duzu bakeari buruz?
- ▲ Bakea eta justizia lotuta daude?
- ▲ Non sortzen da bakea?
- ▲ Zure inguruan bakea falta denean, ohartzen zara? Eta justizia falta denean? Azaldu zergatik.
- ▲ Jarri bakearen alde lan egiten duten pertsonen adibideak.
- ▲ Bakearen eraikitzailea zara? Zer egin dezakezu halakoa izateko?

● Erantzunak partekatuko ditugu eta guztion artean bakea eta justizia eraikitzeko urrats errealisten dekalogo bat idatziko dugu.

● Pentsatzea nahiko erraza da, baina **zein da zure konpromiso zehatza?**

Proposamen hauetako bat edo beste bat aukeratu dezakezu:

- ▲ Bakeari eta justizia sozialari buruzko kartel bat diseinatzea.
- ▲ Bideo labur bat egitea eta sare sozialetan hedatzea.
- ▲ Haurrentzako kontakizun ilustratu bat idaztea.
- ▲ Bakeari eta justiziari buruzko elkarretaratze baketsua antolatzea, zure lagunak eta ezagunak gonbidatuz eta sare sozialetan zabalduz.



Manos Unidas

EGIN DEZAGUN OTOITZ (Eskerrak emateko)

● Elkartu, otoitz egiteko.

- ▲ Gure konpromiso pertsonalak eskaintzen ditugu, bakea eta justizia gure inguruan eta Hegoalde globaleko herrialdeetan sustatzeko.

● Otoitz egin abestien erritmoan dantzatzuz:

- ▲ “Las cometas siempre vuelan en agosto”, Morat-ena: <https://lc.cx/yZNugA>
- ▲ “Cuando los ángeles lloran”, Maná-rena: <https://goo.su/YKG14>

● Egin otoitz elkarrekin

Gure Jauna,
herri guztiei jatorri bera eman diezun horrek,
eta herriokin zeure baitan familia bakarra bildu nahi izan zenuenak,
bete itzazu guztion bihotzak zure maitasunaren garraz
eta piztu bitza anai-arreben aurrerabide justuaren nahiak,
bakoitzak gizatasun betea lortzeko nahikoa izan daitezen
gu guztion artean bihotz-zabaltasunez banatzen dituzun ondasunak,
eta, bereizkeria oro desagertua delarik,
berdintasuna eta justizia munduan segurtatuak izan daitezen.
Amen.

(Pobreen VI. Mundu Egunekeo diru-bilketako otoitza)



GAZTEEN KATEKESIA

AITOR DEZAGUN (Interpretatzeko)

“Bakea ez da bakarrik gerrarik eza. Justizia, maitasuna eta barkamena egotea ere bada”. (Joan Paulo II.a)

● Zer dakizu bizi zaren munduaz?

- ▲ Mundu osoko 1.100 milioi behartsuetatik ia % 40 bizi da gerra, hauskortasuna edo bake-maila eskasak dituzten herrialdeetan.
- ▲ Indarkeriaren, gatazka armatuen eta hondamendi naturalen erruz, 120 milioi pertsonak baino gehiagok utzi behar izan dute beren bizilekua.
- ▲ Pobrezia multidimentsionala bi aldiz handiagoa da herrialde ahuletan, gatazken eragina edo bake-maila txikia jasaten dutenetan.
- ▲ 8 segundotik behin hiltzen da haur bat gosearen edo malnutrizioarekin lotutako gaixotasunen ondorioz. Zein izango da arrazoia?

● Bada ITXAROPENA

- ▲ Herrialde, kultura eta erlijio desberdinetako gazteek bakea bultzatzen dute elkarrizketaren eta bizikidetzaren bidez. <https://goo.su/dHiNx>
- ▲ Sant ‘Egidio Komunitatea eta beste zenbait erakunde ari dira bakea eraikitzeke lanean: <https://www.santegidio.org/pageID/30056/langID/es/PAZ.html>
<https://goo.su/ar9L6l>
- ▲ Bake-ekimenak eta gizartea berreraikitzeke ekimenak. Kolonbiako Errefuxiatuen Jesuiten Zerbitzuak bakerako hezten du, Manos Unidasekin batera. <https://goo.su/hS7B>





Manos Unidas

INTERPRETA DEZAGUN (Aukeratzeko)

● Irakurri bakeari buruz hitz egin duten pertsonen eta erakundeen testuak

"Anai-arrebak, gure herri berekoak zarete, zuen anai-arreba nekazariak erailtzen dituzue, baina, gizaki batek ematen duen hiltzeko aginduaren aurrean, Jainkoaren lege honek gailendu behar du: "Ez erail!". [...] Eliza da Jainkoaren eskubideen, Jainkoaren legearen eta giza duintasunaren defendatzailea, eta ezin da isilik geratu hainbeste gorrotoren aurrean". (Óscar Romero)

"Barkamena da ekintzarako eta askatasunerako gakoa".
(H. Arendt)

"Itun honen helburuak modu eraginkorragoan gauzatzeko, hau da, nazioarteko harreman baketsuak eta adiskidetsuak garatzen laguntzeko, Alderdiak, banaka zein batera, etengabe eta eraginkortasunez jardungo dute, norberaren ahaleginaren eta elkarrekiko laguntzaren bidez, eta eraso armatuari aurre egiteko gaitasun indibiduala eta kolektiboa mantendu eta areagotuko dute". (NATOren sorrera-ituna, 3. art.)

"Txoriak bezala hegan egiten ikasi dugu, arrainak bezala igeri egiten; baina ez dugu ikasi anai-arreba gisa bizitzeko arte xumea".
(Martin Luther King)

● Taldean hitz egin

- ▲ Zer ideia azpimarratuko zenituzke?
- ▲ Nola jartzen zaituzte kolokan?

● Taldeka irakurri

"Azken batean, Jainkoaren erregetza ez baitatza jan-edaneko gauzetan, baizik eta Espiritu Santuaren dohain diren zulentan, bake eta alaitasunean". (Erm 14,17)

"Orduan, otsoa eta bildotsa elkarrekin biziko dira, lehoiabarra eta antxumea elkarren ondoan etzango; zekorra eta lehoikumea batera haziko dira, eta haurtxo batek zainduko ditu". (Is 11,6)

"Harreman-sistema berri bat ezarri behar da gizartean, egia, justizia, karitatea eta askatasuna irakatsiz eta errespetatuz: (...) gizabanakoen artean; (...) herritarren eta beren estatuen artean; (...) estatu horien artean (...), eta (...) munduko komunitatearen artean".
(PT 161)

"Gure garai honetan, liskar gehiegi ikusten dugu oraindik. Gorrotoak, indarkeriak, aurreiritziek eta desberdinkeriek eragindako zauri gehiegi ikusten dugu, Lurraren balibideak ustiatzen dituen eta pobreenak baztertzen dituen paradigma ekonomiko baten ondorioz. Ore horren barruan, batasun, elkartasun, anaitasun hartzigarri txiki bat izan nahi dugu". (Leon XIV.a)

● Pentsatu eta bateratu

- ▲ Zer diote testuek bakeari buruz?
- ▲ Zergatik joan behar dute elkarrekin bakeak eta justiziak?
- ▲ Bihotzaren bakea eta anaitasuna. Zer da zuretzat bihotzaren bakea? Zer da anaitasuna?

AUKERA DEZAGUN (Jarduteko)

“Bakea, neure bakea, ematen dizuet; nik ematen dizuedan bakea ez da munduarena bezalakoa”. (Jn 14, 27). Jesusek, Bakearen Printzeak, zatiketa eta gatazkaren erdian bakearen eraikitzaile bihurtzera gonbidatzen gaitu.

● Hausnartu

- ▲ Nola konpontzen dituzu gatazkak?
- ▲ Nola jokutzen duzu bakearen eta anaitasunaren aurrean?
- ▲ Nola izan zaitezke, gaur egun, bakearen eraikitzaile zure ingurunean, zure etxean, zure komunitatean, zure sareetan? Har ezazu konpromiso bat.
- ▲ Hautatu zurekin arazo bat duen pertsona bat, eta saiatu konpontzen.

● Bakea ekinean

- ▲ Bateratu konpromisoak.
- ▲ “Konpromisoen harresia”
 - ✓ Idatzi post-itetan.
 - ✓ Itsatsi horma batean.
 - ✓ Idatzi bakeari buruzko manifestu edo dekalogo bat.

EGIN DEZAGUN OTOITZ (Eskerrak emateko)

● Antolatu bakearen aldeko esnaldi bat

- ▲ Girotu konpromisoen harresiaren bidez.
- ▲ Irakurri ezagutzeko testuetako bat
- ▲ Entzun Hakunaren **“Noche”**: Hakuna <https://lc.cx/Z-1icb>
- ▲ Partekatu oihartzunak, eskatu barkamena, eman eskerrak.
- ▲ Egin otoitz elkarrekin: “Jauna, bihur nazazu zure bakearen tresna. Gorrotoa dagoen lekuan, maitasuna jar dezadala. Iraina dagoen lekuan, barkamena jar dezadala. Tristura dagoen lekura, poza eraman dezadala. Zure bihotzeko bakea nirean bizi dadila. Amen”.
- ▲ Partekatu eremu ludiko batean pertsona bakoitzaren ekarpena.






HELDUEN KATEKESIA

AITOR DEZAGUN (Interpretatzeko)

● Pentsatu

- ▲ Gatazken Indize Globalak adierazten du zenbat herrialde dauden gerran. Zergatik daude gatazka horiek abian? Zer ondorio dakarzkie pertsonei?



▲ Egungo gatazka armatuei buruzko zenbait datu:

- ✓ 92 herrialdek modu aktiboan parte hartu zuten 56 gerratan.
- ✓ Militarizazioa nagusi da gaur egun, 108 herrialdek areagotu baitute joera hori.
- ✓ Bakeari eusteko funtsak 49.600 milioi \$ dira; gastu militarrenak, berriz, 2,44 bilioi \$.

▲ Indarkeria eta pobrezia lotzen dituzten datuak:

- ✓ Guztira 6.300 milioi biztanle dituzten 112 herrialdeetan, 1.100 milioi pertsona bizi dira pobrezian.
- ✓ 1.100 milioi behartsuetatik ia % 40 (455 milioi) bizi da gerra, hauskortasuna edo bake-maila eskasak dituzten herrialdeetan.
- ✓ Gerran dauden herrialdeetan, pobrezia-tasa % 34,8koa da, gerrak eragiten ez dien herrialdeetako (% 10,9) baino nabarmen handiagoa.

● Hausnartu

- ▲ Hainbeste indarkeriaren aurrean, zer sentimendu pizten dira zuegan?
- ▲ Zer indarkeria-adierazpen ikusten dituzu zure inguruan?

INTERPRETA DEZAGUN (Aukeratzeko)

“Lurra danbadaka zapaltzen zuten gudari-botak eta odolez zikinduriko jantziak suak erreko ditu eta irentsiko. Haur bat jaio zaigu, Jainkoak seme bat eman digu. Beroni ezarri zaio aginpidea, eta honela deitzen diote: Errege bake-emaile. Gero eta zabalagoa izango da haren agintaritzza, azkengabea bakea”. (Is 9, 1-6)

“Zorionekoak bakegileak, haiek baititu Jainkoak seme-alabatzat”. (Mt 5,9)



“Bakea ez da bakarrik gerrarik eza. Bakea, erantzukizun handiko karguak betetzen dugunontzat batez ere, konpromiso bat da gure anai-arrebei askotan ukatzen diegun duintasuna aitortzeko, bermatzeko eta berreraikitzeko, beren nazioaren patuaren protagonista nagusi senti daitezen”. (FT 233)

● Hausnartu eta bateratu

- ▲ Zertara dei egiten dizu Jaunak indarkeriaren eta pobreziaren arteko harremana ulertzen duzunean?
- ▲ Jainkoa aitatzat onartzeak esan nahi du besteak anai-arrebatzat hartzea. Zer ondorio ditu baieztapen horrek zure bizitzan?

AUKERA DEZAGUN (Jarduteko)

● Hausnartu eta bateratu

“Gerra egiten duenak ahaztu egiten du gizateria. Gerra egiten duenaren abiapuntua ez da jendea. Hark ez dio pertsonen bizitzari zehatz begiratzen; sortutako interesak eta boterea jartzen ditu beste ezeren aurretik. Armen deabruzko logika zitalaren, hau da, Jainkoaren borondateetik urrunen dagoen logikaren mende jarduten du, eta bakea nahi duen herri xehearengandik urruntzen da. Gatazka orotan, herria da benetako biktima, gerraren erokeriak bere larruan ordaintzen dituena”. (Frantzisko aita santua)

“Bakea ez da bakarrik gerrarik ez izatea. Bakea aldarte bat da, pertsona guztienganako maitasun-eta erruki-jarrera bat”. (Gandhi)

“Nazio bat, diru gehiago gastatzen badu armamentu militarrean gizarte-programetan baino, heriotza espiritualera hurbiltzen da”. (Martin Luther King)

“Gerrak gizakien buruan sortzen direnez, gizakien buruan eraiki behar dira bakearen gotorlekuak”. (UNESCO)

- ▲ Zer esaten dizute testu horiek?
- ▲ Bakearen artisaua zara? Jarri adibideren bat.
- ▲ Nola eraman dezakezu praktikara zure bizitzan?
- ▲ Nola hezi ditzakegu familia, parrokiako komunitatea, ikastetxeak, gizartea... bakean?



Manos Unidas/Marta Goyeneche

● Bateratze-lana

- ▲ Hitz egin honi buruz: Nola bizi dugu errealitate hori gure baitan, Espainiako gizartean eta munduan?
- ▲ Zer konpromiso hartuko duzu gizarte baketsu bat eraikitzeko?

EGIN DEZAGUN OTOITZ (Eskerrak emateko)

● Entzun eta egin otoitz abestiarekin:

“Dios está aquí”, Athenas-ena: <https://goo.su/67qJuL>

● Irakurri eta otoitz egin testu honekin:

“Asteko lehen egun hartan bertan, arratsean, ikasleak etxe batean bildurik zeuden; judu-agintarien beldurrez, atak itxirik zeuzkaten. Sartu zen Jesus eta, erdian jarririk, agurtu zituen esanez: «Bakea zuei». Gero, eskuak eta saihetsa erakutsi zizkien. Pozez bete ziren ikasleak Jauna ikustean. Jesusek berriro esan zien: «Bakea zuei. Aitak ni bidali nauen bezala, nik zuek bidaltzen zaituztet». Eta haien gainera arnasa botaz, esan zien: «Hartzazue Espiritu Santua. Zuek bekatuak barkatzen dizkiezuenei barkatu egingo dizkie Jainkoak ere; zuek barkamena ukatzen diezuenei, ukatu egingo die». (Jn 20, 19-23)

● Entzun eta egin otoitz abestiarekin:

“Envíame”, Ixcís-ena: <https://goo.su/ChZEr9C>

- Hitzaren eta kantuen argitan, Jainko Aitari gure eskaerak goratu, eta eskerrak ematen dizkiogu.

- Anai-arreba gisa, bakean eta indarkeriarik gabe bizitzera deituta gauden aldetik, gure otoitza goratzen dugu: **Gure aita**.

Gidaliburu honetako gaietan sakontzeko:
<https://www.manosunidas.org/profundizar-temas-esta-guia>

Manos  Unidas

900 811 888 - manosunidas.org